



A m o r o t o k o U d a l a

Elexalde Auzoa, 1
48289 Amoroto (Bizkaia)
Tel: 946842549 - Fax: 946243704
E-mail: mblaka.amoroto@bizkaia.org
Web: www.amoroto.net

Akta: 09/04

2004KO URRIAREN 20AN EGINDAKO BATZARRA

Amoroton, udaletxeko batzar aretoan, bi mila eta lauko urriaren hogeian, gaueko zortzietan, behean aipatzen diren zinegotzi jaun andreak bildu dira, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andrea buru dela.

Bertaratuak:

Zinegotziak: Ramon Abaroa Iturran
Bitor Mari Gabiola Leniz
Sorkunde Gabiola Zabala
Ainara Ikaran Zugazaga
Igor Gabiola Antxustegi
Pedro Mari Arriaga Meabebasterretxea

Idazkaria: Miren Begoña Laka Ortuondo

Bertaratu ez direnak:

Bat ere ez

Alkate-udalburu andreak batzarrari hasiera eman ondoren, aurreko batzarreko akta irakurri eta aho batez onetsi da.

Jarraian, ondorengo erabakiak hartu dira:

1.- ALKATEAREN ETA ZINEGOTZIAREN ERRENUNTZIAK AINTZAT HARTZEA.-

Idazkariak azaldu du, lehen ahoz adierazi zuten bezala, Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andreak eta Pedro M^a Arriaga Meabebasterretxea zinegotzi jaunak formalki eta idatziz aurkeztu dutela bere udal karguetara errenuntzia. Alkate andreak espreski adierazi du zinegotzi kargura ere errenuntziatzen duela.

Honen aurrean, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Maribi Ugarteburu Markuerkiaga alkate andreak eta Pedro M^a Arriaga Meabebasterretxea zinegotzi jaunak aurkeztutako errenuntziak aintzat hartzea.

2) Hauteskunde-Batzorde Zentralari akordio honen berri ematea, ondoren aipatzen diren Herriko Kandidaturako ordezkoko hautagaien aldeko izendapena emateko eskatuz:

- Jon Laca Telleria j.
- Alexander Arrillaga Laca j.

3) Maribi Ugarteburu Markuerkiaga andreak funtzioetako alkate bezala jarraituko du, harek eta zinegotzi berrien kredenzialak heldu eta bere karguen jabetza hartzeko eta alkate berria izendatzeko osoko bilkura egin arte.

2.- AITZIBER AMUTXASTEGI ANDREARI OBRETARAKO LIZENTZIA EMATEA, EGOKI BADA.-

Aitziber Amutxastegi Gabiola andreak Elexalde auzoan eraikitzen ari den nekazal ustiapenari lotutako etxebizitza bakarrararako saneamendu konexio egiteko argi-endarra eramateko obrak egiteko, obretarako aurkeztu duen udal lizentzi eskaeraren berri eman da.

Udalbatzak aho batez erabaki du eskatutako obretarako lizentzia ematea, ondorengo baldintzei loturik:

1go) Udaletxean aurkeztutako agiriei loturik burutu beharko dira obrak. Dena dela, kondukzioak lur azpitik eramane beharko dira.

2.) Obrak bukatzeko epea urte betekoa izango da, erabaki hau jakinarazten denetik zenbatuta. Epea hau igarotzen denetik lizentziaren balio eta ondorioak galduko dira. Aipatutako lizentzi epea luzatu ahal izango da, urte bete horren barruan interesatuak arrazoi justifikagarriak azaltzen badu.

3.) Obretarako lizentzi hau jabeak eskubideak salbu eta hirugarren baten kalterik gabe emanda ulertuko da.

3.- AMOROTOKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA PUNTUALA, LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN, IDAZTEA KONTRATATZEA.-

Alkate andreak azaldu du, Arau Subsidiarioetan, lurzoru ez urbanizagarrian eraikitzeko partzela minimoa 10.000 m²koa dela. Nekazal partzela minimoa 7.500 m²koa denez, uste du komenigarria litzatekela Arau Subsidiarioetan ere partzela minimo hau jartzea, herritarren onurarako izango baita.

Gaia aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du:

Jesus Angel Landia Uribe Arkitektoari enkargatzea Amoritoko Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren idazketa, lurzoru ez urbanizagarrian partzela minimoa 7.500 m²koa ezartzeko.

4.- GORKA ZATIKA JAUNARI EMANDAKO OBRETARAKO UDAL BAIMENAREN ALDAKETA.-

Idazkariak azaldu du 2004-06-16ko datarekin erabaki zela obretarako udal baimena ematea Gorka Zatika Kortabitarte jaunari, Elexalde auzoan nekazal ustiapenari lotutako etxebizitza eraikitzeko.

Aipatu lizentzian 7.500 m²ko lur-saila binkulatzea edo lotzea eskatu zen, nahiz eta arau subsidiarioetan gutxienez 10.000 m²ko lur-saila izan behar dela ezarri. Honek arazoak sortu ditu Jabetza Erregistroan inskribatzerakoan.

Arazo hau konpontzeko, Udalbatzak aho batez erabaki du 2004ko ekainaren 16ko datarekin Gorka Zatika Kortabitarte jaunari emandako obretarako udal baimenaren 6. baldintza aldatzea. Bere testu berria ondorengo izango da:

6) Eraiki nahi den etxebizitza baserri lanari lotuta egongo da. Foru Aldundiko Nekazaritza sailko ziurtagiria aurkeztu beharko da udaletxean.

Etxebizitza bakar berriari 11.585 m²ko lur-saila binkulatu edo lotu beharko zaio (lur-sail hau agrupatutako hiru partzelekin osatuta dago). Jabetzako Erregistroan inskribatzerakoan aipamena egin beharko da terreneak hirigintzazko binkulazioa duela eraikuntzengan.

Halaber, eskritura notariala aurkeztu beharko da. Bertan binkulatutako terreneo eskatzailearen jabetzako dela agertu beharko da eta aipatutako hirigintza binkulazioaren aipamena agertu beharko da.

5.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga araupetzen duen udal ordenantza fiskalean 2003ko urriaren 8ko akordioz ezarritako kuotak, behin behinean gehitzea % 2,6an, aurreko urtean IPC-k izandako igoera. Horrela gutxienezko kuotei aplikatzeko koefizientea 1,58koa da.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedienteaz azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpeneko epea.

6.- UR HORNIDURA ZERBITZUA ESKAINTZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Ur hornidura zerbitzua eskaintzeagaitik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza Arautzailearen 9. artikulua aldatzea, kuotak %2,6an igotzeko (2003ko IPC); aldaketaren testua akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubidearen Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedienteaz azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpeneko epea.

7.- ESTOLDERIA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Estolderi zerbitzuagatikoko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 5. Artikuluaren 2. lerroaldea aldatzea, kuotak %2,6an igotzeko (2003ko IPC); aldaketaren testua akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedienteaz azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpeneko epea.

8.- ZABOR BILKETA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Zabor bilketa zerbitzuagatikoko tasa arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua aldatzea, kuotak %2,6an igotzeko (2003ko IPC); aldaketaren testua akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedienteaz azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpenarako epea.

9.- BASO EKOIZKINAK ATERATZEKO UDAL TITULARTASUNEN BIDEEN ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA ALDATZEKO BEHIN BEHINEKO AKORDIOA.-

Udalbatzak aho batez erabaki du:

1) Baso ekoizkinak ateratzeko udal titulartasuneko bideen erabilpena arautzen duen Ordenantzaren 6. artikulua aldatzea, kanona %2,6an igotzeko (2003ko IPC); aldaketaren testua akordio honen eranskinean datorrelarik.

2) Toki Araubideko Oinarriak araupetzeko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu efektuak, proposatzen den gehikuntza edo aldaketak, eta bere aldaketa edo derogazioa onartu arte indarrean iraungo du.

3) Behin behineko akordio hau jendaurrean agertarazi, era berean honi atxikitako eranskina ere, hogeita hamar eguneko epean, interesdunek egoki deritzen erreklamazioak aurkez ditzaten eta espedienteaz azter dezaten.

4) Jendaurreko azalpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean iragartzea, dagokion iragarkiaren argitaratze egunaren hurrengo egunetik aurrera zenbatuko delarik azalpenarako epea.

10.- OLETAKO BIDEGURUTZEA BIRMOLDATZEKO PROIEKTUKO OBREN KUDEAKETA "LEARRI, S.A." MERKATARITZA-ENPRESAREN ESKU UZTEKO PROPOSAMENA.-

"Oletako bidegurutzeko birmoldatzeko proiektua" exekutatzeko bideratutako administrazio-espeditentean ageri diren datuak kontuan izan dira, eta ondokoa ere OINARRITZAT HARTU DA:

Lehenengoa: Azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 15 artikulua, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeko aldarazpenak aintzat hartuta, ondokoa ezarri zuen:

1. Zuzenbide publikoko erakunde edo administrazio-organoen eskumeneko jarduerak, zehazkiago esateko, arlo material, tekniko edo zerbitzu arloko jarduerak, burutzeko ardura Administrazio bereko edo beste Administrazio bateko organo edo erakundeen esku utz daiteke, eraginkortasun arrazoiak direla-eta, edo jarduera horiek burutzeko bitarteko tekniko egokirik ez badago.
2. Kudeaketa norbaiten esku uzteak ez du esan nahi eskumenaren edo eskumena burutzeko funtsezko elementuen titulartasuna lagatzen denik, eta kudeaketa besteren esku uzteko proposamena egiten duen organo edo erakundearen ardura da besteren esku utzitako jarduera material zehatza osatzen duen edo jarduera horren euskarri den egintza edo ebazpen juridiko oro burutu edo ematea.
3. Administrazio bereko zuzenbide publikoko administrazio-organoen edo erakundeen arteko kudeaketa norbaiten esku uztea bertako araudiak ezarri bezala formalizatu beharko da eta, araudirik ez balego, parte hartzen duten organo edo erakundeen berariazko erabakiaren bidez. Edonola ere, kudeaketa norbaiten esku uzteko proposamena formalizatzeko bitartekoa eta ebazpena bidezko egunkari ofizialean argitaratu behar dira, eraginkorrak izan daitezten.
Administrazio bakoitzak beharrezko betekizunak arautu ahal izango ditu akordio horiek baliozkoak izan daitezten. Akordio horiek, gutxienez, honako hauek aipatu behar dituzte berariaz: eragina jasango du(t)en jarduera(k), indarraldia eta norbaiten esku utzitako kudeaketaren izaera eta irismena.
4. Kudeaketa hori norbaiten esku uztea Administrazio desberdinetako organo eta erakundeen artean egiten bada, bidezko hitzarmena sinatuko da organo eta erakunde horien artean, Autonomia Erkidegoetako

zerbitzuak, modu arruntean, probintziako Diputazioek, edo bidezkoa bada, uharteko Kabildo edo Kontseiluek kudeatzen badituzte salbu; izan ere, kasu horretan Toki Araubideko legediari heldu behar zaio.

5. Artikulu honetan araupetzen den kudeaketa norbaiten esku uzteko artikulu honetan araubide juridikoa ez da aplikatuko lehenengo atalean adierazitako jarduerak zuzenbide pribatuko pertsona fisiko edo juridikoek burutu behar badituzte. Izan ere, kasu horretan kontratuei buruzko Estatuko legediari heldu behar zaio, bidezkoa denean, eta indarrean dagoen legediaren arabera, administrazio-zuzenbideari jarraiki egin behar diren jarduerak ezin dira izaera horretako pertsona edo erakundeen esku utzi.

Bigarrena.- "LEARRI, S.A." enpresa bideratzailea da eta bere gizarte-jarduerak burutu beharreko obrak barne hartzen ditu. Enpresaren kapital sozial guztia tokierakundeena da, Udal honena, besteak beste, Udala "LEARRI, S.A." sozietateko bazkidea da eta. Horrela bada, kontratazioari dagokionez, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretua aplikatzen zaio; hori dela eta, kasu honetan funtsezko baldintzak eta baldintza organikoak betetzen dira LEARRI, S.A. sozietateak goiburukoan adierazitako obren burutzapenean organo kudeatzaile gisa jardun dezan.

Ondorioz, aurreko arauak, Toki Araubidearen Oinarriak araupetzen dituen Legea, orokorrean eta berariaz aplikatu beharreko gainerako arauak, bai eta gai honi dagokionez egindako txostenak aztertu ondoren, Udalaren osoko bilkurak, gaia eztabaidatu eta gero, aho batez, ondokoa ERABAKI DU:

- 1) LEARRI, S.A. merkataritza-enpresari emango zaio "**Oletako bidegurutzea birmoldatzeko proiektuko**" obrak kudeatzeko ardura, bere exekuzioa adjudikatuz .

- 2) Aipaturiko obrak dagokien proiektuaren arabera egingo dira, hain zuzen ere ondoko baldintzak betez:

- 1- Obren inportea guztira: 74.260,00 € euro proiektuaren arabera.

- 2.- Obrak hasi eta burutzeko epea: Ezarri gabe.

- 3) Alkate andreari eskumena emango zaio, erabaki hau betetzeko egintza edo izapideak egin eta, bidezkoa bada, akatsak zuzen ditzan.

- 4) Erabaki honen berri emango zaio LEARRI, S.A. enpresari.

11.- KOSTATZAKO BIDEAREN EGOKITZEA, 2004KO KANPAINA, OBREN OBRA ZIURTAGIRI BAKARRA, EGOKI BADA, ONARTZEA.-

Nestor Lejarreta obren zuzendari jaunak luzatutako "Kostatzako bidearen egokitzea, 2004ko kanpaina" obren obra- ziurtagiri bakarraren berri eman da. Bere zenbatekoa 38.977,45 eurotako da eta Udalbatzak aho batez erabaki du:

- 1) "Kostatzako bidearen egokitzea, 2004ko kanpaina" obren obra-ziurtagiri bakarra onartzea. Bere zenbatekoa HOGETA HAMAZORTZI MILA BEDERATZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMAZAZPI EURO ETA BERROGEITA BOST ZENTIMO (38.977,45 €) da.

- 2) Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Sailari apirilaren 1eko 1609/2004 zenbakidun Foru Aginduaren bidez emandako 23.300,00 eurotako dirulaguntza ordaintzeko eskatzea.

12.- GASTUAK.-

Ondorengo gastu eta fakturak aurkeztu dira, behar bada onartzeko:

- SGAEn faktura, 1.339,80 €.
- Ostoa, S.A.ren faktura, 176,00 €.
- Fermin Burdin-dendaren faktura, 46,10 €.
- Fontaneria Letraukua, S.L.ren faktura, 12,90 €.
- Canonren fakturak, 558,88 € eta 36,97 €.
- Construcciones Ogella, S.L.ren faktura, 576,94 €.
- Electricidad Argi-Ola, S.L.ren fakturak, 15.691,49 € eta 3.849,29 €.
- Bide Ondoren faktura, 99,27 €.
- Zoreloren faktura, 231,77 €.
- Cetolar, S.A.ren faktura, 198,36 €.
- Lea Artibai Landa Garapeneko Alkarteari, 1.693,38 €.
- UEMari, 1.386,00 €.
- Ansaren faktura, 22,29 €.
- Learriren faktura, 3.856,79 €.
- Jesus Landiaren fakturak, 580,00 €, 1.978,07 €, 870,00 € eta 1.801,38 €.
- Jose Domingo Ikaran Urkaregiri, 96,00 €.
- Carlos Anakabe Ulaziari, 96,00 €.

Udalbatzak aurkeztutako gastuak onartzea eta ordaintzea erabaki du.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburu andreak bilera amaitutzat eman du gaueko hamaikak eta laurdenak direnean eta nik, Idazkariak, erabakitakoak jasotzeko akta hau egin dut.

ERANSKINA 1

**2005 EKITALDIKO TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN GAINEKO
ZERGAREN TARIFEN KOADRUA**

Ibilgailuaren potentzia eta mota	Gutxieneko kuota	Koefizientea	GUZTIRA
A) TURISMOAK			
8 zerga-zaldi baino gutxiago	12,62 €	1,58	19,94 €
8tik 11,99 zerga-zaldira bitartekoak	34,08 €	1,58	53,85 €
12tik 13,99 zerga-zaldira bitartekoak	60,10 €	1,58	94,96 €
14tik 15,99 zerga-zaldira bitartekoak	84,14 €	1,58	132,94 €
16tik 19,99 zerga-zaldira bitartekoak	108,18 €	1,58	170,92 €
20 zerga-zaldi baino gehiago	132,22 €	1,58	208,91 €
B) AUTOBUSAK			
21 plaza baino gutxiago	83,30 €	1,58	131,61 €
21-50 plaza	118,64 €	1,58	187,45 €
50 plaza baino gehiago	148,30 €	1,58	234,31 €
C) KAMIOIAK			
1.000 Kg-tik beherako zama erabilgarria	42,28 €	1,58	66,80 €
1.000-2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	83,30 €	1,58	131,61 €
2.999-9.999 kg bitarteko zama erabilgarria	118,64 €	1,58	187,45 €
9.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	148,30 €	1,58	234,31 €
D) TRAKTOREAK			
16 zerga-zaldi baino gutxiago	17,67 €	1,58	27,92 €
16tik 24,99 zerga-zaldira bitartekoak	27,77 €	1,58	43,88 €
25 zerga-zaldi baino gehiago	83,30 €	1,58	131,61 €
E) TRAKZIO MEKANIKODUN ATOIAK ETARERDI ATOIAK			
1.000 Kg-tik beherako zama erabilgarria	17,67 €	1,58	27,92 €
1.000-2.999 kg bitarteko zama erabilgarria	27,77 €	1,58	43,88 €
2.999 kg-tik gorako zama erabilgarria	83,30 €	1,58	131,61 €

F) BESTE IBILGAILU BATZUK			
Ziklomotorrak	4,42 €	1,58	€ 6,98
125 cc arteko motozikletak	4,42 €	1,58	€ 6,98
125 cc baino gehiagotik 250 cc arteko motozikletak	7,57 €	1,58	€ 11,96
250 cc baino gehiagotik 500 cc arteko motozikletak	15,15 €	1,58	€ 23,94
500 cc baino gehiagotik 1.000 cc arteko motozikletak	30,29 €	1,58	€ 47,86
1000 cc-tik goragoko motozikletak	60,58 €	1,58	€ 95,72

Amoroto, 2003ko urriaren 27.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 2

UR HORNIDURA ZERBITZUA ESKAINTZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASAREN ORDENANTZA ARAUTZAILEAREN ALDARAZPENA

1. Ur hornidura zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza Arautzailearen 9. artikulua aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

9. artikulua.-

1.- Zerga kuota tarifa bat, espreski erabakitako kopuru finko bat edo, bestela, bi prozedurak batera erabiliz finkatuko da, ondorengo atalean ezarritakoaren arabera.

2.- Ur hornidura zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasaren tarifak ondorengoak izango dira:

25 metro kubikoko gutxienezko kontsumo-kopurua ezarri da, eta hiruhilero 12,58 euro kobratuko dira gutxienezko horren truk.

Gutxienezko kopuru horretatik gora kontsumituko den metro kubiko bakoitzeko 0,507136 euro kobratuko dira.

Banaketa sarera egiten den hartuneagatik 90,15 euro kobratuko da etxebizitza edo ur hartze bakoitzeko.

2. 1998ko urriaren 28ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 1999tik 2003 urtera bitartean aldatu den ur hornidura zerbitzua eskaintzeagatik ordaindu beharreko tasaren Ordenantza Arautzailearen 9. artikulua indargabetu egin da.

3. Proposatutako aldazpenak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Amoroto, 2004ko urriaren 27.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 3

ESTOLDERIA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDARAZPENA

1. Estolderia zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 5. artikulua 2. lerroaldea aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

5. artikulua.- Tributu-kuota.

(....)

2. Estolderia eta arazketa zerbitzuengatik hiruhilebetero exijituko den tributu-kuota finkoa ondorengo izango da: 8,99 euro.

(....)

2. 1989ko abenduaren 29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 1992tik eta 2003. urtera bitartean aldatu den estolderia zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 5. artikulua 2. lerroaldea indargabetu egin da.

3. Proposatutako aldazpenak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Amoroto, 2004ko urriaren 20.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 4

ZABOR BILKETA ZERBITZUAGATIKO TASA ARAUPETU DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDARAZPENA

1. Zabor bilketa zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 6. Artikulua aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

6. artikulua.- Tributu-kuota.

1. Tributu-kuota unitate eta lokaleko zenbateko finko bat izango da; zenbateko hori higiezinaren izaera eta helburuaren eta unitate edo lokal horiek kokatuta dauden toki, plaza, kale edo herribide horren mailaren eta emandako zerbitzuaren arabera zehaztuko da.

2. Ondoren horietarako, ondoko tarifa hau aplikatuko da:

- a) Etxebizitzak: 16,22 euro/hiruhilero.
- b) Merkataritzarako lokalak, ostalaritza izan ezik: 36,03 euro/hiruhilero.
- c) Industriak eta ostalaritza: 60,98 euro/hiruhilero.

2. 1989ko abenduaren 29ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 1991tik 2003. urtera bitartean aldatu den zabor bilketa zerbitzuagatiko tasa araupetu duen Ordenantza Fiskalaren 6. Artikulua indargabetu egin da.

3. Proposatu den aldarazpenak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Amoroto, 2004ko urriaren 20.

ALKATEA,

IDAZKARIA,

ERANSKINA 5

BASO EKOIZKINAK ATERATZEKO UDAL TITULARTASUNeko BIDEEN ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZAREN ALDARAZPENA

1. Baso ekoizkinak ateratzeko udal titulartasuneko bideen erabilpena arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. artikulua aldatu egin da, honako era honetara idatzia geratu delarik:

6. artikulua.- Kanona.

Erabilitako neurriaren arabera, ateratako estereoko 0,243688 euro edo metro kubikoko 0,559826 euroko kanon edo tarifa ezartzen da. Kanona ateratzea hasi baino aurretik ordaindu beharko da.

2. 1991ko abenduaren 26ko Osoko Bilkuraren erabakiaren bidez onetsi eta 2000tik 2003. urtera bitartean aldatu den baso ekoizkinak ateratzeko udal titulartasuneko bideen erabilpena arautzen duen Ordenantza Fiskalaren 6. Artikulua indargabetu egin da.

3. Proposatu den aldarazpenak 2005eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, beti ere Toki Araubidearen Oinarriak araupetu dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 107. Artikuluan ezarri denarekin bat, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.

Amoroto, 2004ko urriaren 20.

ALKATEA,

IDAZKARIA,